

Altza

# Elkartasunaren eguna

**Larraitz Garmendia** (Ifnoa.: 391267)

**A**ltzako Altzargi Gazte Taldeak, Gazteria sailarekin batera, Elkartasunaren eguna antolatu du urtarilaren 3rako. Elkartasunaren egunak «Ipar-hegoaren bidezko merkataritza» leloa izango du eta San Martzial parrokian egingo da. Ekin-tzak goizeko 10.00etan hasiko dira. Goizerako hitzaldiak, ikusentzutekoa eta haurrentzako jokoak iragarrita daude. Arratsaldean, aldiz, umeekin kantaldi berezia izango dugu eta salmentak ere egingo dira. Kantaldi berezi honetan honako talde hauek arituko dira: Villancicos Niños de Altza, Rondalla y Coro del Hogar San Martzial, Coro Mixto Parroquia Jesus de Nazaret (Larratxo), Jose Mari, Bittor, Arantza, Ana Pozas, Helios, Arazola ahizpa trikitilariak, Ohiana Neska Mutil alaiak eta Itxaropena zortzikotea.



Argozkia: Inanol Olegi

«Ipar-hegoaren bidezko merkataritza» lelopean elkartasun eguna egingo da bihar larunbata.

## Parte Zaharra

**Amaia Ruiz** (Ifnoa.: 428326)



### Korrikalari azkarrenak

Gaizka Larramendi eta Lourdes Alonso dira aurtengo Behobia-Donostian parte hartu zuten Parte Zaharreko lasterkari onenak. Portaletas tabernak Kai kaleko zubi ezagunaren zilarrezko irudi bana eman zien sari gisa joan den abenduan, eta gustura zeuden biak. Gaizka Larramendik ordubete eta bederatzi minutuko denbora lortu zuen eta Lurdes Alonsoren marka berriz, ordubete t'erdikoa izan zen.

taberna jatetxea

**Eguneroko menua**  
Etxeko janaria  
Karta zabala

Fermin Calbeton 7  
Tfnoa.: 42 07 82

**ZULOAGA**  
**TXiki**

- 30-40 plaza
- Biltokia
- Ikusentzunezko ekipamendua
- Taberna-jatetxea
- Jolaserako ingurune zabala

Tolosa-Anoeta errepidea  
20400 TOLOSA  
Tfnoa.: 65 00 36 eta 65 16 09